

Gure gimnasioa martxan jartzeko eta mantentzeko, hainbat gastu ditugu. Kostu horiek finkoetan, aldagarrietan, eskala ekonomia eta hedapen ekonomian banatu ditzakegu.

Kostu finkoei begira: hiru lokalen alokairua dago, Azienda eraikuntzeko ondoko lokala, Antiguo auzoan (ibaetan) 2300 euro hilean / Zabaleta kalean, Gros auzoan, 2250 euro hilean / Idiakez kalean, Zentroan 6000 euro hilean.

Argiindarrean 6000 euro izango ziren hilean hiru gimnasioak kontuan izanik, gasean 1300 euro gasean izango ziren eta uraren kostua 1800 eurokoa izango litzateke. Guztira 9100 euro izango ziren.

Gimnasio bat denez, makinak eta materialak ere kontuan izan behar ditugu. Kardioko gunean: korrika egiteko lau makina gimnasioko (2500 euro x12), bizikikleta estatikoak (2000 euro x12) eta arraun-makina (2000 euro x3). Indar eremuan: sentadillen kaiola (1200 euro x3), Smith makina (1500 euro x3), polea makina (2900 euro x3), pres banka makina (2400 euro x3) eta Hack squat makina (1500 euro x3). Material gehigarria: pisu ezberdinetako mankuerak (200 euro x30), zinta elastikoak (15 euro x30), baloi medizinalak (30 euro x30), bankuak (25 euro x30), esterilak (8 euro x30), sokak (8 euro x30) eta yoga pilotak (8 euro x15).

Langileak ere izango ditugu, gimnasio bakoitzean bat edukitzen. Bakoitzari 2000 euro ordainduko dizkiogi hilean, hau da, 6000 euro beharko ditugu langileentzat. Asegurua ere behar da, hilabetean 20 euro ordainduz.

Gainera, gure sistema berriztagarri hau mantentzeko beharrezkoa da web horri bat edukitzea. Horrela, bezeroek gimnasio barruan pasa dituzten hordu edo eta egunak apuntatzeko aukera izango dute. Webgunea argitaratzeak 2500 euroko kostua izango du, kontuan izanda informatikan aditua den norbait behar dela.

Kostu aldagarriei begira: eguneroko produktuak daude, jaboia, papera, garbiketako produktuak... Hilabetan prezioa aldatu daiteke baina 50 euro izango lirateke gutxi gora behera hilabeteko. Gainera erabiltzen dugun sistemagatik bezeroen jarrerak ere eragina izango du, sarrera gehiago edo gutsiago lortuz.

Gure negozio ereduak eskala-ekonomiak aprobetxatzen ditu: bezero gehiago ditugunean, kostu finkoak erabiltzaile gehiagoren artean banatzen dira. Horri esker, maiz etortzen diren bezeroei prezio baxuagoak eskaini ahal dizkiegu, eta hala ere gimnasioak irabaziak mantentzen ditu, bezero leialen kopuru handiari esker.

Proiektuak hasieran inbertsio garrantzitsua eskatzen du, batez ere gimnasioko makinak erosteko, lokala behar bezala egokitzeko eta erabiltzaileen kontrola eta deskontuak kudeatzeko sistema digitala sortzeko. Inbertsio hori epe ertain eta luzean berreskuratzea aurreikusten da, bezero kopuruaren hazkundeari eta haien etengabeko etorrerari esker.